

100. Egunkaria gaurkoarekin

Euskaldunon Egunkaria, 1991-04-04: 11.

EUSKALDUNON EGUNKARIA 100 zenbaki kaleratu dituen honetan egoki dela deritzogu lehen balantze labur bat egitea. Hasierako zailtasunak gainditzeko oinarrizko laguntza irakurleagoak eskeini du. Ehun zenbaki inprimatzea bakarrik izan balitz, lanak menderatuta genituzkeen aspalditik, baina honez gain Euskal Herriko eta mundu osoko berriak egunero euskaraz jaso, inprimatu, goizero garaiz zabaldu eta erosleekin topatzea izan da gure egiazko apostua.

Hiru puntu aipa nahi ditugu laburki:

1. Lehendabizi, euskarari dagokiona: egunero 6 herrialdeetako 60.000 bat euskaldunei eman diegu berriak goizero euskaraz irakurtzeko aukera.

Hau, lehen aldiz gertatzen den zerbait da.

2. Hau ez da soilik gure meritoa izan; aurretik euskara maila honetara jaso duten Ikastola, Helduen Alfabetatzea eta Komunikabideetatik azken hamar urteetan egin den euskararen zabalkundea agerian geratzen dira; eta *EGUNKARIA*ri dagokionez, honek izan dituen langile fin eta saiatuei ere zor zaie, noski, hauek izan bait dira gure egitasmoa posible egin dutenak, eta idazkuntzatik kanpo dauden alderdi ezberdinetako kazetari eta idazleei ere, dena esateko.

3. Harrigarria izan da lortu dena; batez ere oztopoak izan ditugula kontuan izanik. Instituzio nagusi batzuek egin dizkiguten hutsak ere nabarmenak izan bait dira, bidezkoak ziren laguntza minimoak ere jaso ez ditugulako.

Orain arte egindakoari, aurrerapenerako bideak jarri behar dizkiogu; orrialdeak gehitu, herrialdeei zerbitzu bereziak eskeintzeko, eta astean sei irtenaldietatik zazpira pasa ahal izateko.

Bigarren urrats honetarako Instituzio nagusien jokabidea dago auzitan.

Zorionak guztioi!!